

Uztaileko Tolosa Kantari bertan behera geratu da

Gaurko 'Txangozatu' gaztetxoei zuzendutako ikuskizuna azkenean egitea erabaki dute // 2

Peña II.a eta Erasun finalerako lehia ariko dira bihar

Binakako Promozio Txapelketako finalerdietako partida dute, Zabala eta Ruizen aurka // 7

Udako oporraldiaren aurreko azken alea bihar argitaratuko du ATARIAK. Irailaren 1ean itzuliko gara. Bitartean, jarraitu eskualdeko berriak ataria.eus-en.

Tolosaldean ez da positiborik izan, bigarren egunez jarraian

Tolosarren artean kontzientzia zabaltzeko 1.200 kartel banatu ditu udalak herrian zehar // 2



ATARIA

«Osatuagoa da, mimo handiagoarekin egina»

YERAY GASCON ETA JON ANDER ARTOLA HABI


Villabonako Errebote plazan kontzertua emango du gaur Habi taldeak; martxoaz geroztik lehen zuzeneko dute, eta disko berriko kantuak ere joko dituzte // 6



BERROBIN

BIZITZEN ARI GAREN GARAIETARAKO ETXEBIZITZA EZIN HOBEAK

TERRAZA ZORAGARRIAK, 2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK, HERRI ERDIAN. BISTA EDERRAK. LASAIA ETA EGUZKITSUA



OTEGUI ERAIKUNTZAK
BIZKAI KALEA 2, BEHEA - TOLOSA
TEL. 943 67 21 72 - 608 77 28 01
otegui@oteguieraikuntzak.com

Zaborrak biltzeko sistema berria jarri dute Amezketan

Txartel bidez irekitzen diren edukiontzien sistema abiatu du udalak, eta berrikuntzak egingo ditu hainbat auzotan

Erredakzioa Amezketa

Hilabete hasieran jarri zuten martxan txartel bidez irekitzen diren edukiontzien sistema Amezketan. Azken asteetan ontzi gris eta marroiak irekitzeko txartelak banatzen eta herritarrekin bilerak egiten aritu da udala; azaldu dutenez, «sistema berriaren funtzionamendu egokia» lortzeko helburuarekin.

Sistema berria ezartzeak doikuntzak eskatzen ditu, eta Amezketako Udalak hainbat berrikuntza egingo dituela aurreratu du. Horien artean, Ergoene auzoan bost ontzien gune berri bat jarriko du; gainera, kokaleku egokiena aztertzen dabil egunotan udala, Tolosaldeko Mankomunitatearekin elkarlanean. Bestetik, Ergoene eta Ugarte auzoetan mantendu egingo ditu zerrautsak jasotzeko ontziak. Zubillaga auzoan, berriz, ontzi urdina eta horia jarriko ditu eta datozen asteetan, herriko konposta egiteko guneak eraitsi eta jaso egingo ditu.

Bada ontziak irekitzeko txartela jaso ez duen herritarrik ere. Horiei txartela helarazteaz udala bera arduratuko dela ere iragarri du. Azkenik, gertatu diren gorabehera batzuk direla eta, txartelak ezin direla zulatu nabarmendu du udalak, zulatuz gero, barruan duten txip batek funtzionatzeari uzten diola eta.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, «izan duten eta oro har duten jarrera arduratsuagatik». Hala ere, herritar jakin batzuek ere zuzendu dira. «Zoritzarrez, beti daude utzikieriaz jokatzeko duten zenbait herritar. Horiei, beste behin ere, erantzukizun mezu bat helarazi nahi zaie, denon onerako den jarrera bat izan dezaten».

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefonora.



Alondegia plazan egin zuen Tolosa Kantarik azken saioa, ekaineko azken larunbatean, distantziak mantenduz. IRATISAIAR

Bertan behera utzi dute Tolosa Kantariaren larunbateko saioa

Zuzendaritzatik diotenez, «bizi dugun egoerak ez digu lasai aritzeko baldintzarik eskaintzen»; bestalde, 'Txangozatu' saioa Zumardiaundian izango da, gaur, 18:00etan

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Tolosako Udalak udako kultur eskaintza aurkeztu zuenetik, bi emanaldi izan dira oraingoz bertan behera utzi eta atzeratu behar izan dituztenak; hain justu, pasa den asteburukoak. Izan ere, pasa den astean positibo gehiago zenbatu ondoren, bazirudien egoera ezegonkortu egingo zela. Azken datuek, ordea, esperantzarako bidea ireki dute berriro.

Hala ere, bada bertan behera utzi behar izan duten ekitaldi bat: uztaileko Tolosa Kantari. Kantu jiraren inguruan biltzen direnei oharra zabaldu diete ekimenaren sustatzaileek, hauek izan baitira azken erabakia hartu dutenak. «Tolosa Kantariko zuzendaritzak uztaileko kantua jira bertan behera uztea erabaki du, beraz, datorren larunbatean, hilak 25, ez dugu saiorik egingo. Bizi dugun egoerak ez digu lasai aritzeko baldintzarik eskaintzen eta hala hobetsi dugu».

Martxoaz geroztik, Tolosa Kantariaren bueltan bazkaria egitekoak ziren, eta hura ere bertan behera uztea erabaki dute, hainbat atzerapen eta gero. Bazkari-

rako aurrez saldu ziren txartelen dirua berreskuratzeke, bi leku hauetakoren batetara jo beharko da: Xirimiri Kafetegia edo Elektriariak (Arantxiren) denda.

TXANGOZATU, AZKENEAN BAI

Asteartean, Intujai Teatrok, gaur egingo den *Txangozatu* saioa bertan behera geratzen zela jakinarazi zuen, bere sare sozialen bitartez. Hasiera batean ez zeuden ados hartutako erabakiarekin, nahiz eta horrelako egoera batean ulerkorra zitzaien une batetik bestera erabakiak hartu behar izatea. «Ezarritako neurri bereziekin egiteko moduko ikuskizuna da, beraz, gure aldetik ez zegoen arazorik», dio May Gorostiaga elkarteko kideak.

Hala ere, atzo bilera bat izan zuten udaleko ordezkariarekin, kultur etxean, eta bilkura hartatik pozik atera zen Gorostiaga. «*Txangozatu* saioa mantentzen da, Tolosaldeko kultura salbatzea lortu dugu», zioen. «Badirudi asteartean sare sozialetan zabaldu-tako mezuak eragina izan duela. Gainera, positibo berririk ez da zenbatu, eta beraz, egoera hobetzen ari dela dirudi».

Izenak dioen moduan, txango bat da emanaldia. «Elementu ezberdinekin egingo dute topoi-ikusleek: malabarrak, ipuinak, musika...» Haurrentzako prestaturako saioa da berez, baina nahitaez heldu batekin joan behar dutela gogorarazten du. Hori, baina, ez da ezarritako baldintza edo neurri bakarra izango. Izan ere, nahitaezkoa izango da musukoa jantzita joatea.

Lau saio egin ordez bi egingo dituzte (lehena, 18:00etan), bien arteko denbora tartea handituz, jende pilaketak ekidin eta guztia ondo antolatu ahal izateko. Gainera, 20 lagunekoa izan beharrean, 16koak izango dira saioetako taldeak. Sarrera doakoa izango bada ere, gonbidapenarekin joan beharko da; kultur etxean lortu daitezke, eguerdira arte.

ALKATEAREN MEZUA

Datozen egunetako saioetan nahiz bestela ere, herritarrei elkartasunez eta erantzunkidetasunez jokatzeko eskatu die Olatz Peon Tolosaldeko alkateak: «Ekidin jende pilaketak eta zorrotz jarraitu neurriak. Elkarlanean egin behar dugu lan, guztiok batera».

Bigarren egunez jarraian, positiborik ez eskualdean

Eusko Jaurlaritzak atzo emandako datuen arabera, ez zen kasu berririk atzeman ez astelehenean, ezta asteartean ere

Erredakzioa

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak atzo eguerdian emandako datuen arabera, Hego Euskal Herriko zenbait eremutan kasu berri gehiago agertu dira, eta guztira, 241 kasu zenbatu ziren asteartean: Gipuzkoan 37, Bizkaian 67, Araban 7 eta Nafarroan 130.

1.200 KARTEL, TOLOSAN ZEHAR

Herriko jarduera mantentzea helburu hartuta, eta herritarren osasuna eta segurtasuna lehene-tsiz, *#BabestuTolosa* lelopean 1.200 kartel banatu ditu Tolosaldeko Udalak herriko saltoki, taberna, jatetxe, zerbitzu-gune nahiz eraikin publikoetan; panel informatiboetan ere jarri dira. «Tolosarren artean elkar zaintzeko eta babesteko kontzientzia zabaltzea da helburua, herritarrek leloarekin bat egiteko», diote.

Egunetik egunera kasu berriak gutxiago badira ere, Olatz Peon alkateak mezu bat helarazi nahi izan die herritarrei: «Azken egunotako datuek arnasa eman badigute ere, oso garrantzitsua da arduraz eta zuzentziaz jokatzeko jarraitzea, egoera oso aldakorra delako».

MUSUKOA ERABILTZEA, EZBAIAN

Musukoaren nahitaezko erabilera bertan behera utzi edo ez erabaki behar du EAEko epaitegi gorenak. ACUS elkarteak Eusko Jaurlaritzaren erabakiaren aurka salaketa jarri zuen epaitegian, nahitaezkoatasuna behin behinean bertan behera uztea eskatuz. Jaurlaritzaren erabakia Espainiako gobernuaren dekretuaren gainetik dagoen edo ez jakin nahi du. ACUS-en esanetan ez dago osasun arrazoirik erabaki hori justifikatzeko.

Luis De Miguel Ortega elkarte-ko abokatuak gogor salatu du Jaurlaritzari: «hau izugarrikeria bat da; inongo justifikaziorik ez duen herritarrekiko abusu bat». Atzo adierazi zuenez, «epaileak oraindik ez du erabakirik hartu». Gainera, epaitegian gertatutakoa publiko egiteko asmoa dute.

Euskal Herriko tontorretara musika eramatea helburu duen Urmuga ekimena barrutik bizitzen ari da Joxemi Saizar tolosarra; ibilbidearen erdia egina dute.

Euskal lurraldeak lotuz, mendia eta musikaren bidez

Joxemi Saizar

Urmuga mendia eta musika uztartzen dituen egitasmoaren erdira iritsi gara eta gauzak ondo doazela esan behar da, eguraldia lagun. Bi isurialdeen erdian gabiltza, Kantauri eta Mediterraneo, eta bi muturren erdian gaude, Angulo mendatea eta Hiru Erregeen Mahaia. Araba eta Bizkaia pasatu ditugu jada, Gipuzkoa eta Nafarroa artean aurkitzen gara une honetan. Nafarroa Beherea eta Zuberoa gelditzen zaizkigu oraindik bisitatzeko. Muga kasu honetan, banatzeko izan beharrean, Euskal Herriko lurraldeak elkartzeko motiboa izango da, musika bidelagun izanik.

Mendia da proiektu berri honen zutabeetako bat. Garobel mendilerroan hasi genuen ibilaldia uztailaren 14an, Bizkaia, Araba eta Burgos arteko eta jada Euskal Herriko mendi esanguratsu batzuk izan ditugu gozagarri ibilbidean zehar: Tologorri, Gorbeia, Anboto, Elgea, Aizkorri, Altzania... eta Aralarren bihotzean aurkitzen gara. Sorgin eta jentilen lurraldeak dira, gertu sentitu ditugu Mari, Basajaun eta lamiak, magiaz beteriko tokiak. Mendi leunak eta gogorrak, batzuk igotzeko erosoak, beste batzuk zailtasun handiagokoak. Paraje ederrak gehienak, tontorretatik urrutira begiratu eta gozatzeko talaiaik.

Ibaiaik sortzen dira pasatzen ari garen leku hauetan. Oinez goazen norabidean, ezkerrean jaisten diren urek Kantauri itsasoan bukatuko dute, eskuinaldean, Ebrora eta gero Mediterraneo itsasora, hainbat erreka, erreka eta ibaien bitartez. Atzean utzi ditugu jada Nerbioi, Ibaizabal, Kadagua, Oka, Lea eta Artibai, besteak beste, Bizkaian eta Omecillo, Baia, Zadorra Araban. Mendi tontorrek dira askotan bi isurialdeen arteko banalerroak eta kasu berezi batzuetan, ermita batzuen teilatuek egiten dute banaketa hori, Urkiola eta Otzaurteren kasuan adibidez.



Garazi Egiguren eta Flavio Banterla Tologorri eskaini zuten saioan. JOXEMI SAIZAR

MUSIKAREN DOINUA INGURUNE NATURALETAN

Musika da Urmugaren beste euskarria. Ibilaldian aurrera goazen neurrian, hainbat kontzertu topatu ditugu bidean. Tolosan «gaizki» ohituta gaude horrelako emanaldietara, Et Incarnatus orkestrak 21 urtez eskaini duelako udako solstizio egunean, hasiera batean Uzturren eta azken urteotan Urkizun. Baina eskualdetik kanpo ez da batere ohikoa horrelako emanaldiak izatea ingurune naturaletan.

Lehendabiziko saioa Tologorriko zelai batean izan genuen, tolosar ugari protagonista zirela: Xabi Zeberio biolin jotzailea, Amaia Elizaran eta Garazi Egiguren dantzariak, Flavio Bartela kantaria... Tolosan egun batzuk lehenago eskainitako *Out* ikuskin zuna eman zuten lehen biek. Maider Zabalegi kantaria eta Et Incarnatus laukotea ere bertan aritu ziren, kontzertu magikoa eskainiz.

Urkiolako santutegian, babesle den Euskal Sagardoaren eskutik, performance itxurako emanaldia burutu zuten hainbat artistak, tartean Juantxo Zeberio piano-jotzaile eta Elene Arandia



Gorbeia ingurutik Anboto aldera begira. J. SAIZAR



Et Incarnatus orkestra abeslari eta bertsolariekin batera Diman. J. SAIZAR

kantari tolosarrak. Poesia eta pintura ez ziren faltatu, sagardo dastaketa batekin lagunduta.

Dimako San Lontzo ermitan, Baltzola kobetatik gertu, Et Incarnatus orkestran babestua, Migel Zeberioaren zuzendaritzapean, Hertzainak taldeko Josu eta Gari, Maddi Oihenart eta Miren Narbaiza *Mice* aritu ziren kantari. Jende ugari elkartu zen belarretan eserita, kantarien ereserki bihurtutako doinu ezagunak bere ahotsekin laguntzen. Mikel Laboaren *Izarren hautsa* kantatuz amaitu zen basoko jaialdi ederra.

Urbian Juantxo Zeberio aritu zen berriz teklak astintzen, kasu honetan Maddi Oihenarten kantutik sentikorrak lagunduz, alboan Gorka Benitez saxoa eta flautarekin zuela. Saio intimoa eta hunkigarria izan zen benetan.

Lareoko kontzertuaren ondoren idazten ari naiz lerro hauek eta bertan Et Incarnatus orkestrarekin batera Donostiako Orfeoia, Eneko Dorronsoro trikitilaria eta Xabier Leturia billabonatarra aritu dira Jose Mari Iparragirre eta Benito Lertxundiaren hainbat doinu eskainiz. Tolosako Inauterietako *Habanera* eta *Troika* eta Urkizuko solstizio kontzertuetan ereserki bilakatu den *Iraolanekoa* (azken biak Karlos Linazasoren letra paregabeekin) izan ziren emanaldiaren ukitu tolosarrak.

PARTE HARTZEKO AUKERA

Esan bezala, Aralarren erdian gaude eta aurrera begira zer ikusi eta zer entzun ugari daukagu. Natur gune bereziak ditugu zain: Basaburua, Ultzama, Kintoa, Orreaga, Irati, Larra... eta mendi tontor esanguratsuak ere bai: Ireber, Saioa, Adi, Urkulu, Okabe, Orhi, Otsogorrigaina, Kartxela... euskal tontor handienean bukatzeko abuztuaren leian, Hiru Erregeen Mahaia.

Eta musika eskaintza ere ez da agortu. Lerro hauek irakurtzerako Aralarreko Aizpearro anfiteatro natural apartan egindakoa pasata egongo da, baina oraindik aukera izango duzue Baigorri 26an, Okaben 28an, Orhin eta Erremendian 30ean eta Hiru Erregeen Mahaiko abuztuaren 1eko saioetara joateko. Tartean, Et Incarnatus orkestraz gain, eskualdeko hainbat musikari izango dira partaide. Edota nahi izanez gero, mendi ibilaldiaren etapa batzuetan parte hartzeko aprobetxa dezakezue. Hala nahi izanez gero, www.urmuga.eus webgunean dituzue xehetasun guztiak.

Lau kilometro inguruko ibilbidea da Bidania-Goiatz osatzen duten Bidania eta Goiatz auzoetan barna egin daitekeena; bide erraza da, eta bitxikeria ugari ezagutzeko aukera ematen du.

Pausoak bi auzoetan barrena

Iñigo Terradillos Gaztañaga
Bidania-Goiatz

Bidania eta Goiatz. Eta, euren arteko batuketaren emaitza, Bidania - Goiatz. 2014. urte-tik da horrela, izan ere, 1964. urtean bi herriak elkar-tu zirenean, Bidegoian izena hartu zuen udalerriak. Ederki islatzen zuen herriaren ezaugarrietako bat, altuera, lurraldeko herrigunerik altuena duena baita.

Bidanitik Goiatzerako joan-etorria baliatu ahal du ibiltariak herria gertutik ezagutzeko. Autobus geltokitik abiatuta, pilotalekuaren atzetik igaro, eta familia bakarreko etxeen artean sorturiko kaletik joango da. Kalea amaitu egingo da, baina jarraitu daiteke Iriondo baserriaren aldamenetik igarotzen den bidetik.

Urrutian, Goiatz auzoa bistarazten da. Bidexkak errepidera eramango du ibiltaria, eta handik malda txiki bat gaindituta, bi edo hiru minutuan iritsiko da Goiatzera. Bidaniaren herena da Goiatz biztanleen kopuruari eta azalerari dagokionean. Antzina zera esaten zuten bertan, eguzkia eta lainoa tartekatzen ziren egunetan Mari ikus zitekeela harria maskaltzen, Murumendi



Azpeitira joateko, Urrakiko bidea edota Errezilgoa aukera daiteke. I.U.



mendiko kobazulo baten sarre-ran. Kobazulo horretan, Itsason-doko apaiz batek meza ematen omen zuen zazpi urtetik behin. Bestalde, ohiturari jarraituz, maiatzean belar eta lore sortak eramaten zituzten San Joan baselizara, ondoren, baserri atarian erretzeko ekaitza zetorrenean.

Goiazko plazarako bidean, iturri berezia dago. 1914. urtekoa da, eta harriko idatziaren arabera, Labayenena da. Iturriari loturiko karteltxoak diotenaren arabera, debekatuta dago bertan garbiketa lanak egitea. Antza, agintariek 250 pezetako isuna jartzen zieten iturria horretarako erabiltzen zuten herritarrei. Beraz, bertako ura edatera mugatuko da ibiltaria.

BIDANIRA ITZULIA

Iturria bezain berezia da Goiazko plaza, pilotaleku, eta taberna eta guzti. Herrigunea nahikoa ikusi eta gero, Bidanirantz zuzenduko ditu pausoak. Goiatzera eraman duen bide bera erabiliko du horretarako, geltokira iritsi arte.

Ibilaldia zertxobait osatze aldera, Tolosarantz doan errepideko espaloitik jarraituko dugu. Herrigunea atzean utzi, eta zuzen luzera iritsiko da. Bada, espaloia bukatu arte jarraituko du ibilian, eta puntu horretan, es-

kuinera hartuko du, han zabal-tzen den bidexkan aurrera egi-nez. Bidexka horren bitartez itzuli bat emango du, hainbat baserri zeharkatuz. Berriro ere, errepidera iritsi arte, ezkerrera hartuko du, Bidanira joateko.

Azpeitirako bidean bi aukera irekitzen diren puntura iritsiko da. Hau da, Urrakitik segi, edota Bidanitik barna Errezil igaroz. Bigarrena, eskuinekoa, aukera-tuko du, eta plazara iritsiko da, harategiaren parean dagoen tabernatik eskuinerako bidea hartuz. San Bartolome eliza izango du parez pare.

Bidania-Goiatzek azken urteetan bisitarien kopurua igo izanaren errudunetako bat plazatik oso gertu dagoen Iriarte jauregia izan daiteke. XVII. mendeko eraikinean hotel eta jatetxe zerbitzua eskaintzen dute 2009. urteaz geroztik.

Gipuzkoako altuera handi-eneko herrigunea du Bidania-Goiatzek. Kokapenarengatik izan da, hain justu, garrantzitsua historian, Oria eta Urola bailarak batzen zituelako. Beizama, Errezil eta Aiarekin, Mendietako bost herriak izenez ezagutzen zen multzoa osatu zuen. Bost herri-ka horiek Saiazeko Alkatetza Nagusiaren zati ziren, Aia, Laurgain, Urdaneta eta Albizturrekin.



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

Informazio guztia:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484
943 69 02 97

Leyre Carrasco Ibarra

Jon Iraola ibartarra, aktore eta gidoilaria da. ETB 1eko *Wazemank* saioan egon ostean, *Noa-oo!*-n jarraitu zuen aktore lanetan, baina telebistaz gain irratian ere ibili izan da imitazioak egiten. Telebista mundua utzia du, eta gaur egun zertan ari den jakiteko aukera izan dugu.

Atzera begira, faltan botatzen al duzu telebistako lehen lerroan egotea?

Egia esatea nahi baduzu ez dut faltan botatzen. Egia da nostalgia daukadala garai ona izan zelako eta bizitako une horiek politak izan zirelako. Baina ez, orain ez dut faltan botatzen lehen lerroan egotea.

Aktore lanetan beti, baina gehienbat umorearekin lotuta ikusi zaitugu. Euskaldunok ez al ginen ba serioak?

Ez, euskaldunak ez gara inoiz serioak izan. Serioak baino gehiago agian erreserbatuak izan garela uste dut. Gogoan dut *Noa-oo!*-n platoko istorioak grabatzen genituenean publikoa ekartzen genuela grabaketetara. Bertan bai ikusten zen jendea lotsatia zela, eta hori gehien bat gipuzkoarrek gertatzen zen. Bizkaitarrak berriz denerako apuntatzen ziren, baita arabarrak ere. Gipuzkoarrak oso beldurtiak eta lotsatiak ziren.

Maite duzu aktore lana? Zinema ere aritu zara eta...

Bai, zine munduan zerbait grabatu izan dut. *Aupa Etxebe* filmeko bigarren gauza bat egiten egon nintzen, telesail bat ere egin nuen *Gernika bajo las bombas* izeneko... bai mundu polita da. Bertan ikusten duzu zenbat jende dagoen lanean, inguruan dagoen estresa gauzak egin behar direnean... bai polita da zinema lan egitea.

Zinema telebistaren antzekoa edo erabat desberdina al da?

Oso desberdina. Telebistan ere formatu asko daude baina nik lan egin nuen formatuan beste lasaitasun bat zegoen. Zinema munduan grabatzen duzunean beste kalitate bateko mediok daude, plano gehiago daude, dena askoz zainduagoa dago. Telebistan aldiz, *Wazemank* grabatzen genuenean txorizo fabrika baten modukoa zen; makina martxan jarri eta *sketch*-ak bota eta bota.

Zertan ari zara gaur egun?

Egoera hau dela eta, une honetan langabezian nago, baina bestela eskubaloari entrenatzaile moduan ari naiz hemen, Tolosa CF Eskubaloian. Pasa den urtetik entrenatzen dut lehenengo tal-



«Ez dut faltan botatzen lehen lerroan egotea»

JON IRAOLA

AKTOREA, GIDOILARIA ETA ENTRENATZAILEA

Telebista munduko lehen lerrotik aldendu, imitazioak alde batera utzi eta kirol munduan era bat murgildu da Iraola. Gaur egun, Tolosa CF Eskubaloiko lehenengo taldeko entrenatzailea da.



LEYRE CARRASCO

dea; orain arte haurrak eta gazteak entrenatzen aritu naiz, baina pasa den urtean aukera hau eskaini zidaten eta aurrera.

Telebistaz eta zinemaz hitz egin dugu orain arte, baina irratian ere zure lanak egin dituzu. Zein alde dago biren artean?

Niretzat handia. Gehien bat zuk telebistan begiradarekin eta gorputz keinuen bidez asko adieraz-

ten duzulako eta irratian hori egiteko aukera ez dagoenez, entzulearengan irudimena jartzen duzu jokoan gehienbat. Nik gainera imitatzaileri izanda, pertsonaia desberdinak egiteko trebetasuna nuen, eta horrek aukera handia ematen zidan erregistro desberdin asko egiteko.

Sortutako pertsonaien artean, kuttunen bat?

Euskaraz sortutako ia pertsonaia

guztiak maite ditut; Joxean Tolosa, Mañukorta... denak. Adibidez Mañukorta eta Tolosa pertsonaia baten gainean ateratako beste pertsonaia ziren, eta sargardotegiko Axintxio zerotik sortu nuen. Agian besteak baino maiteago dut hori. Hala ere ez daukat gustukorik.

Nola hasi edo sartu zinen mundu horretan?

Gau askotan *Telecinco* katean ze-

WAZEMANK

2005. urtean ETB 1eko umorezko telebista saioa zen izan zen *Wazemank*. Arraskata izan zuen. Besteak beste, Anjel Alkain, Ainere Tolosa, Jon Iraola, Mikel Pagadizabal, Iñake Irastorza, Ana Elordi, Mikel Laskurain, Egoitz Lasa, Ixabel Agirresarobe, Asier Sota, Anartz Zuazua eta Aitor Gabilondo aktoreek parte hartzen zuten. ATARIA

goen *Cronicas Marcianas* izeneko saioa ikusten nuen telebistan. Bertan Carlos Latre hasi zen agertzen eta ahotsa modulatzeko zuen moduagatik arreta deitu zidan. Hortik aurrera bere antzeria hasi nintzen, jendeak egiten zuena imitatzen. Konturatu nintzen ahotsa modulatzeko trebetasuna nuela eta oso ondo moldatzen nintzela. Beraz, pertsonaia desberdinak imitatzen eta nire pertsonaia sortzen hasi eta tabernaz taberna antzerki moduko bat egiten hasi nintzen. Anjel Alkainek antzerki batean ikusi ninduen eta hasi berri zuen *Wazemank* izeneko proiektura gonbidatu ninduen. Han hastera animatu nintzen, eta horrela hasi zen dena.

«Inoiz ezin da ezetz esan, baina une honetan ez dut faltan botatzen telebista mundua»

Oraindik imitazioak egiten jarraitzen duzu?

Egia esatea nahi baldin baduzu denbora pila bat igaro da ez dudala imitaziorik egiten. Lehen horretaz egiten nuenean lan, adibidez, kotxean nindoan eta askotan pertsonaia imitatzen joaten nintzen. Baina, jada denbora asko igaro da hori egiteari utzi nionetik.

Lehen aipatu duzu ez duzula faltan botatzen telebista, baina etorkizun batean telebistara itzultzeko aukera izango bazenu itzuliko zinateke?

Inoiz ezin da ezetz esan, baina une honetan telebista mundua ez dut faltan botatzen. Agian, horrek ere estres moduko bat sortzen duelako, eta urte dezentegiro ditudanez mundu horretan, itzuliz gero badakit zer den hori. Bertan hasi nintzenean ez nekien zer zen, beraz beste gogo batekin zoaz. Orain nahiko desberdina izango litzateke.

«Indar handia eta sentimendu pila bat dago kantu berrietan»

YERAY GASCON ETA JON ANDER ARTOLA HABI TALDEKO KIDEAK

Villabonako Errebote plazan, 20:00etan eskainiko dute gaur kontzertua, martxotik lehenengoa; udazkenean argitaratuko duten disko berriko kantuak entzun ahal izango dira, besteak beste.

Jon Miranda Amasa-Villabona

Denbora luzea eman dute jendaurrean jo gabe Yeray Gasconek (Amasa-Villabona, 1993) eta Jon Ander Artolak (Amasa-Villabona, 1993). Horregatik bereziki pozten ditu, koronabirusaren osteko Habiren berragerpena herrian bertan egiteak.

Lehen diskoa kaleratu zenutenetik orain arteko bideaz zein balantze egiten duzue?

Yeray Gascon. Ibilbidea ez da oso luzea izan, baina bai bizia eta azkarra. Pasa den urtean atera genuen diskoa eta hamar bat kontzertu eman ditugu guztira. Bizitza laburra eduki du diskoak. Baina, hala ere, hor dago eta jendeak entzuten du. Talde berria gara eta harrera polita izan dugula esango nuke.

Jon Ander Artola. Oso positiboa izan da. Biak elkartu ginenean ez genuen uste talde bat sortuko genuenik, ezta disko bat aterako genuenik ere. Pretentsiorik gabe hasi ginen, ea zer ateratzen zen. Mundu hau ezagutzeko aukera izan dugu, zirkuitua nola mugit-

tzen den ikasteko, kontaktuak lortzeko eta jendea ezagutzeko.

Nola eragin dizue pandemiaren etenaldiak?

J. A. A.: Etenaldia erabatekoa izan da. Asmoa ez zen orain beste disko bat grabatzea, aurrekoari zuku gehiago atera eta kontzertuak ematea baizik. Baina bat-batean dena bukatu zen eta zer egin ez genekiela geratu ginen.

Aurreratu egin duzue disko berri bat grabatzeko asmoa?

J. A. A.: Bai. Gure buruari esan genion, edo zerbait egiten dugu orain, edo proiektua bertan gertatzen da. Aurrez kantuak prestatuta geneuzkan eta diskoa grabatzea erabaki genuen.

Y. G.: Gainera grabatzerakoan ondo pasatzen dugu eta guretzako oso dibertigarria den beste prozesu horretan murgiltzen gara. Lan handia du publikazio bat egiteak, baina gustukoa dugu.

Nolakoa izan da kantu berrien grabazioa?

Y. G.: Victor Sanchez-i hots egin genion. Bera aritu da ekoizpen lanetan. Bi egun eman genituen estudioan, gure entsegu lokala ba-

litz bezala kantuak jotzen. Victorrekin berarekin landu genituen estudioan, hiruon artean erabakiak hartu eta gero beste hiru egun eman genituen grabatzen.

J. A. A.: Guri lehenengo diskoko metodoa asko gustatu zitzaigun. Ez kapaka, zuzenean ariko bagina bezala aritzen gara grabazioan, *feeling* hori egotea eta nabaritzea gustatzen zaigu.

Zein ekarpen dakar lan berriak aurrekoarekin alderatuta?

Y. G.: Kantuetako hitzek aurreko diskoko lerroa jarraitzen dute, metaforak ageri dira, goibelak eta oso barrutik ateratakoak dira. Zerbait esatearren, erritmoa duten kantuek erritmo handiagoa dutela esango nuke, eta motelak edo pisu handiagoa duten kantuek, are pisu handiagoa hartzen dutela disko berrian. Uste dut soinua ateratzeko erabili dugun prozesuarekin duela zerikusia. Indar handia eta sentimendu pila bat dago gure kantu berrietan.

J. A. A.: Gehiago landutako kantuak dira. Tarte honetan gure soinua definitzen joan gara eta horretara ekarri nahi izan ditugu



ATARIA

kantuak. Baliabide gehiago izan ditugu eta esango nuke osatuagoa dela disko hau. Mimo gehiagorekin hartu dugu, hainbeste denbora geldirik egon ondoren gogo izugarria genuelako.

Lehen diskoa bezala, zuek ekoiztiko duzue lan berria?

J. A. A.: Berritasun bat dago oraingo honetan. Diskoa grabatu genuen eta gure intentzioa guk ekoiztea zen. Duela pare bat aste Elkarretik hots egin ziguten. Haiekin bildu eta koedizio moduko bat egitea eskaini ziguten. Ekoizpenari dagokionez, diskoa biniloan ere aterako dugu eta aukera emango digu promozio handiagoa egiteko eta diskoa leku

gehiagotara zabaltzeko. Aukera hau orain sortu zaigunez probatu egin nahi dugu.

Noizko egongo da diskoa kalean?

Y. G.: Udazkenarekin batera espero dugu, urria aldera edo.

Gaurko emanaldian kantu berriak entzun ahal izango dira?

J. A. A.: Bai. Hurrengo ez dakigu noiz edukiko dugun eta aprobe txatu beharra dago. Ez dugu ezer ezkutatzeko, gaur daukagun hori eskainiko diegu gure herriko lagunei. Disko berriko lau kantu aurretik ere eskaini izan ditugu zuzenekoetan, baina beste lau lehenengo aldiz emango ditugu gaur.

Y. G.: Gogo izugarria daukagu.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Eskualdeko bikotea, finalera sailkatzeko aukerarekin

Binakako Promozio Txapelketako finalerdietako partida dute bihar jokoan Peña II.ak eta Erasunek; irabaziz gero, finalean izango dira tolosarra eta zizurkildarra

Imanol Garcia Landa
Tolosa/Zizurkil

Ez dute ibilbide bera egin Jon Ander Peña tolosarrak eta Jon Erasun zizurkildarrak aurtengo promozio mailako binakako txapelketan. Peña II.ak Arangurenekin txapelketako bikote sendoenetako bat osatu zuen. Erasun, bere aldetik, ordezkot moduan aritu da, besteak beste, Aranguren ordezkatzuz. Konfinamendua ezarri aurretik jokaturako azken partidaren horrelaxe egin zuen, eta orain ere berak ordezkaturako du, bihar jokaturako den partida erabakigarrian.

Medranoko (Errioxa) frontoian jokaturako dute bihar txapelketako finalerdia Zabala eta Ruiz bikotearen aurka. 21:00etan hasiko da jaialdia eta beraien izango da lehen partida. Irabazten dutenek finala jokaturako dute Agirre eta Eskiroz bikotearen aurka. Gogoz azaldu da Peña II.a finalerdia jokatzeko: «Denbora asko pasa da etenaldia izan zenetik. Egun bat lehenago esan zigiten bertan behera geratzen zela, eta gero lau hilabete pasa dira. Ia ahaztuta genuen, baina hortxe dago; azken bi asteetan ideia egiten egon gara, partida jokatzeko garaia iritsi da eta oso pozik gaude». Erasunek, bere aldetik, motibazio handia dela dio finalerako sailkatzeko aukera izatea: «Ilusioa egiten du. Hiru atzelariren ordezkot bezala aritu naiz, eta orain Aranguren ordezkatzeko aukera etorri zait, eta

ahal dudan ondoen egiten saiatuko naiz».

Askotan jokatu dute elkarrekin tolosarrak eta zizurkildarrak. 2018ko txapelketan bikote izan ziren, eta finalerdiak jokatu arren, ezin izan zuten finalera iritsi. Orain izango dute beste aukera bat. «Aranguren aukera izan du lehenengo mailan Caixa-bank Mastersa jokatzeko, eta nik uste dut aukera horiek aprobe txatu egin behar direla ematen zaizkizunean», esan du Peña. «Finalerdia Erasunekin jokatzeko, eta pilotari segurua da, eta nik uste dut gure parte eginez gero irabazteko aukera dugula. Txapelketan zehar bi partida jokatu ditugu, eta biak irabazi genituen». Erasunek uste du bien

«Erasun pilotari segurua da, eta nik uste dut gure parte eginez gero irabazteko aukera dugula»

JON ANDER PEÑA
PILOTARIA

artean ondo uztartzen direla: «Orain bi urte txapelketa elkarrekin jokatu genuen eta txapelketan partida gehienak berarekin jokatu ditut. Peña oso ondo dago, lehen mailakoekin partidak irabazten, eta maila oso altuan jokatzeko ari da. Goraka doa, eta horrela jarraituz gero lehen mailan aritzeko maila badu».

Bikote on baten aurka jokatu behar dutela finalerdia diote eskualdeko pilotariek. «Azken as-



Orain hiru urte aurkariak izan ziren Peña II.a eta Erasun finalean; orain elkarrekin finalera iristen saiatuko dira. ASIER IMAZ

teetan maila handian ari diren pilotarien aurka jokaturako dugu. Gurea ondo eginez gero, aukerak ditugu irabazteko. Bi pilotari indartsu eta luze dira, frontisetik urruti ibiltzen zaituztenak, eta horrelako pilotariak oso arrisku tsuak izaten dira», esan du Peña II.ak. Erasunek ere iritzi bera du, eta berari pilotak atzera botatzera joango direla dio, «jakinda

«Peña oso ondo dago, lehen mailakoekin partidak irabazten, eta maila oso altuan jokatzeko ari da»

JON ERASUN
PILOTARIA

Peña dagoela aurrean. Nik uste dut partida gogorra izango dugula, baina guk gurea egiten badugu aukera izango dugu». Gakoa biek «bikotea egitea» dela esan du Peña II.ak: «Bakoitza alde batetik joanda, ez da ezer egiten. Bikotea egin behar dugu, batak besteari lagundu, bion artean akats gutxi egin, eta nik tanto dezentente egin».

Ez dute Medranoko frontoia ezagutzen. «Beti ere, puntu hori

izaten duzu. Ezagutzen ez duzun frontoi batean finalerdia jokatzeko pixka bat presazkoa izan daiteke, baina arazorik ez da izango. Denontzat frontoi berdina da, eta batzuei pixka bat hobeto etorriko zaie, besteei pixka bat okerrago, baina hori beti gertatzen da», zehaztu du aurrelari tolosarrak. Hainbat frontoitan jokatzeko ohituta daudela gaineratu du atzelari zizurkildarrak: «Berez jakitea nolako den hobe da, baina askotan ez du ezer esan nahi horrek. Nik uste dut ez dela frontoiaren aitzakiarik izango».

Sasoari dagokionez, Peña II.ak dio ondo sentitzen dela: «Hiru-lau partida on jokatzetik nator, eta asteburu honetan atsedena izan dut. Ea sentsazioak errepikatzen diren, eta txukun aritzen garen». Bere aldetik, konfinamenduaren ondoren emaitza onak ez izan arren, Erasunek dio prest dagoela: «Entrenatzen ari naiz eta ondo sentitzen naiz, beraz, lasai noa partidara. Nire lanak ondo egiteko aukerarekin noa».

2017ko promozio mailako txapelketan elkarren aurka jokatu

zuten finala eta orduan txapela Erasunek jantzi zuen. Peña II.ak azken Lau eta Erdiko Txapelketa irabazi zuen, eta orain beste txapela jantzi nahi du: «Finalera iristea poztasun handia izango litzateke. Azkenean, urte berezi honi amaiera bikaina ematea izango litzateke. Lau eta Erdikoa irabazita oso pozik nengoen, eta, bestetik, hiru-lau hilabeteko txapelketa bat da, eta gauden tokian zerbaitengatik gaude, denbora askoan ondo aritu garela. Finalerako sartzea urte biribil baten emaitza izango litzateke».

BILLABONA FKE
Arratzain futbol zelaia

JARRAI GAITZAZUE

Billabona Fke
 Billabonaf.k.e
 Billabonafke



OSTEGUNA, 2020KO UZTAILAK 23
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 23

AGENDA

Deialdiak

Tolosalde. Sarek antolatutako presoen aldeko bizikleta itzulita gaur iritsiko da eskualdera: Lizartza (10:30), Tolosako Amaroako biribil-gunea (11:00), Anoeta, Hernialdeko bidegurutzea (11:15), Irurako plaza (11:15) eta Villabonako plaza (11:45).
Ikaztegieta. Sahararen aldeko elkartasun karabana plazan, 17:00etan. Kanpalekuetara bidaltzeko materiala jasoko dute.
Tolosa. Intujairen Txangozatuikus-kizuna, Zumardiaundian, 18:00etan.
Amasa-Villabona. Habi taldearen kontzertua, Errebote plazan, 20:00etan.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika.

28 KANALA

OSTEGUNA
11:00. Elkarrizketa apirilak 3
11:30. Gaurkoan Tolosalde
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30. Gaurkoan Tolosalde
21:30. Gaurkoan Tolosalde
22:00. Goierri ezagutuz

OSTIRALA
11:00. Osoa sukaldean
11:30. Gaurkoan Tolosalde
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30. Gaurkoan Tolosalde
21:30. Gaurkoan Tolosalde
22:00. Urrutiajunbe

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. Lurdes Azpiroz Galartza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro lasaiagoa izango dugu. Egun osoan zehar, zeruan hodeiak eta ostarrateak tartekatuko zaizkigu. Egun hasieran eta amaieran hodeiak ugariagoak izango dira. Aldiz, egunaren erdiko orduetan ostarrateak zabalak izango dira, haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta termometroek pare bat gradu behera egingo dute, maximoak 25-27 graduan joko duelarik goia.



Bihar. Giro atsegina izango dugu egun osoan. Goizean hodeigune dezente agertuko dira zeruan, baina eguerditik aurrera ostarrateak nagusituko dira eta arratsaldean zerua nahiko urdin agertuko da. Haizeak iparraldeko ukitua izango du eta termometroek behera egingo dute, maximoak 22 eta 24 gradu artean kokatuko direlarik.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



ELKARTASUNA EZ DA ETEN

Oporrak Bakean programa ezin izan da aurten antolatu, eta ondorioz, errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren haur sahararrak ez dira gurera etorri uda igarotzerara. Bada, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ez du sahararrekiko elkartasuna eteterik nahi, eta udako programa ez dela izango ikusita, bestelako ekimen bat antolatu du, sahararrek laguntza jasotzen jarrai dezaten. Hala, **Zuek ezin baduzue etorri, gu joango gara** proiektuarekin bat eginez, elkartasun karabana ari dira burutzen, herriz herri hezkuntza eta osasun materiala biltzeko. Atzo Ibarra—irudian—izan ziren, eta gaur, Ikaztegieta plaza izango dira, 17:00etatik aurrera. ENERITZ MAIZ

ZORION AGURRAK



Zorionak!

Bizitzako urtebetetzerik berezienean, ondo pasa eguna! Errioxako ardoarekin, topa!!!!



BIDANIA - GOIATZ
672 798 852
mikellasaiturgintza@gmail.com

Iturgintza
Gasa
Berokuntza
Energia
Berriztagarriak

HOTEL
AIRE
DE
BARDENAS

ZOZKETA

Bi pertsonarentzat bi gaueko egonaldia Aire de Bardenas hoteleko suite batean. Gelak patio pribatua eta kanpoko bainuontzia ditu.

(Erreserba hotelean duten erabilgarritasunaren arabera izango da)



Zozketan parte hartzeko epea uztailaren 23ko 11:00k arte, 943 65 56 95 edo www.ataria.eus-en.